


ZENBATZAILE ZEHAZTUGABEEN
KOMUNZTADURA ALDAKORTASUNA
EUSKARAZ

Euskal Hizkuntzalarien V. topaleketa (2021)

Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Eukene Franco Landa

PhD student

University of Miami

eukenefrancolanda@miami.edu

1. IKERKETA GAIA

- Euskaraz zenbatzaile ahul lausoek aukeran dute zenbaki komunztadura egitea edo ez:
 - (1) a. *Hainbat neskatxa portura abiatu ziren* (+kmz = 3.pl)
 - b. *Hainbat neskatxa portura zen.* (-kmz = 3.sg)
- Interes teorikoa:
 - Euskararen ezaugarria da □ inguruko hizkuntzetan ez da gertatzen.
 - Euskararen barruan ere aldakortasuna dago.
- Galdera teorikoak:
 - **Nondik abiatzen da** komunztadura aldakortasuna?
 - Euskararen **euskalki** guztietan era berean gertatzen da edota gertatu da **historikoki**?
 - **Zenbatzaile** ahul lauso guztiak berdin portatzen dira? Hala ez bada, zergatik?
 - Euskararen ezaugarri gramatikal hau mantendu da, edo **belaualdien artean** aldaketak daude?
 - Hiztunen **ezaugarri soziolinguistikoek** eraginik al dute aukera bat edo bestea hartzerakoan?

GALDERA HAUEI ERANTZUTEKO...

- [1] **Alderdi teorikoa:** Fenomeno honen inguruan emandako azalpenak aurkeztu dira
- [2] **Aldakortasunaren deskribapena *Norantz-eko corpusean oinarrituz***
- [3] **Begiratu bat komuntadurari hegoaldeko testu zaharretan zehar:** Hegoaldea (XV-XIX.m)


2. ALDERDI TEORIKOA:

2.1. TXILLARDEGI (1978) & *EGLU I* (1985)

- Hiru azalpen teoriko nagusi: Txillardegi (1978), *EGLU I* (1985), Etxeberria & Etxepare (2008, 2009, 2012)
- **Txillardegiren (1978) analisisian: multzoa**
 - Zenbatzaile lausoak adjektibo mugagabeak dira
 - Mugagabeen deklinatzea espero du eta horregatik ez da komunztadura plurala egiten
Multzo gisa (mugagabeen) □ *Liburu asko erosi **dut**.*
- ***EGLU I*-en (1985) analisisian: zenbakaitz vs. zenbakarri**
 - Zenbaki komunztadurak (sing. vs. plur.) ezberdintasun semantikoa markatzen du
 - **Masa (zenbakaitza) vs. Bat gehi beste bat, gehi beste bat... (zenbagarria)**

(2) a. *Ikasle guti etorri zen.* (zenbakaitza > masa-interpretazioa)

b. *Ikasle guti etorri ziren.* (zenbagarria > banakoen batuketa)



2.2. ETXEBERRIA & ETXEPARE (2008, 2009, 2012)

Aurreko analisien kontrako argudioak

- [-kmz] egiturak IS-aren masa intepretazioa (3a) izan dezake, zein ez (4a)
 - Irakurketa ez da masarena edo zenbakaitzena, baizik eta banakoena
- (3) a. *Sagar asko **dago** hemen.* □ masa ✓
b. *Sagar asko **daude** hemen.* □ banakoak ✓
- (4) a. *Ikasle asko **dago** hemen.* □ masa X □ banakoak ✓
b. *Ikasle asko **daude** hemen.* □ masa X □ osorik dauden banakoak ✓
- [-kmz] egitura hauek beti dute **irakurketa distributiboa** □ Hau ez da espero dena IS-a masa gisa interpretatuko balitz
- (5) a. *Ikasle askok arbela altxatu du* □ distributiboa ✓ , kolektiboa X
b. *Ikasle askok arbela altxatu dute* □ distributiboa ✓ , kolektiboa ✓

2.2. ETXEBERRIA & ETXEPARE (2008, 2009, 2012)

- Zehaztutako **propietate distributiboan** oinarrituz, **E&E**-k komunztadura gabeko egitura hauek dituzten zenbait murriztapen azal ditzakete:

a) [-KMZ] **predikatu kolektiboekin** agertzeko ezintasuna:

(6) a. *Ikasle ohi askok festa horretan topo egin zuten.* Kolektiboa ✓

b. **Ikasle ohi askok festa horretan topo egin zuen.* Kolektiboa ✗

b) [-KMZ] **predikatu elkarkariekin** agertzeko ezintasuna:

(7) a. *Ikasle askok elkarren/bata bestearen antz handia dute.*

b. **Ikasle askok elkarren/bata bestearen antz handia du.*

(8) a. *Gazte anitz joaten dira elkarrekin ostatu horretara.* Kolektiboa ✓

b. **Gazte anitz joaten da elkarrekin ostatu horretara.* Kolektiboa ✗

c) [-KMZ] **behin-bakarrik predikatuekin** agertzeko ezintasuna:

(9) a. *Baserritar askok hil zuten putrea.* Behin bakarrik ✓

b. **Baserritar askok hil zuen putrea.* Behin bakarrik ✗

2.2.1. ETXEBERRIA & ETXEPARE: PROPOSAMEN SINTAKTIKOA

- Borer-ek (2004) proposaturiko teoriari jarraitzen diote:
 - (10) [DS [ZenbatusunS/NumeroS [KlasifikatzaileS [IS]]]]
 - (11) [DS [ZenbatusunS many/three [KlasifikatzaileS -S [IS person]]]]
- Etxeberria & Etxeparek (2012) Boreren (2004) egitura egokitu dute **ZenbatusunS** eta **NeurriS** zenbatzaile moten artean bereizteko:
 - (12) [DS [ZenbatusunS [NeurriS [KlasifikatzaileS [IS]]]]]]

Etxeberria & Etxepareren (2012) proposamena:

- (13) *Zenbatzaile lauso **komunztadura gabeak***
 - [DS [NeurriS ASKO [KlasifikatzaileS \emptyset [IS IKASLE]]]]]
- (14) ***Komunztadura plurala** eragiten duten zenbatzaile lausoak*
 - [DS [ZenbatusunS ASKO [KlasifikatzaileS \emptyset [IS IKASLE]]]]]

2.2.2. HIRU SISTEMAK EUSKARAZ (ETXEBERRIA & ETXEPARE, 2009)

Komunztadura <u>eza</u> posiblea da?	Mendebalde -Erdialde	Trantsizioa "Lapurdi"	Zuberoa
• Subjektu ergatiboa: <i>Neska askok lan egin...</i>	BAI (eza)	EZ (plur.)	EZ (plur.)
• Subjektu absolutiboa: <i>Neska askok etorri...</i>	BAI (eza)	BAI (eza)	BAI (eza)
• Osagarri absolutiboa: <i>Nik neska asko ikusi...</i>	BAI (eza)	BAI (eza)	BAI (eza)
• Osagarri datiboa: <i>Hark neska askori liburua eman...</i>	BAI (eza)	BAI (eza)	EZ (plur.)
• Zenbaki kardinalak osagarri zuzen funtzioan: <i>Zuk hiru ikasle ikusi...</i>	EZ (plur.)	EZ (plur.)	BAI (eza)

1. taula. Etxeberria & Etxepare (2009: 138)

3. ALDAKORTASUNAREN DESKRIBAPENA GAUR EGUN IPARRALDEAN

3.1. **NORANTZ:**

- CNRS-ko Iker laborategiko proiektua, **B. Oyharçabalen zuzendaritzapean**
- Helburua: Gaur egungo **Iparraldeko euskararen gramatikaren oinarriak** zer bidetatik doazen ikustea eta bildutako datuekin datu-base bat osatzea
- Iparraldeko **59 hiztun** biltzen ditu
- **Aldagai ezberdinetako hiztunak:** adin-tarteak (-30, 40-60, +70), bizileku motak (3) euskara-jabekuntza motak (H1, 2H1, H2g, H2), eskolatzeak (3)



2.2.1. ADINAREN ARABERA


Adin-tartea	Adibideen %100-ean pluralez +KMZ	Hiztun guztiek +KMZ perpausak
-30 urte	10 hiztun	C82-C83 C96-C98
40-60 urte	3 hiztun	C82-C83
+70 urte	0 hiztun	C82-C83 C93-C98

2. taula. Adin-tarteen araberako komunztadura

	≤ 30	40-60	≥ 70	Guztira
-KMZ	97	62	125	284
% Komunztadura	%34.2	%21.8	%43.9	%100
% Adina	%15.2	%25.8	%41.9	%23.9
+KMZ	543	178	173	894
% Komunztadura	%60.7	%19.9	%19.4	%100
% Adina	%84.8	%74.2	%58.1	%75.9
Guztira	640	240	298	1178
% Komunztadura	%54.3	%20.4	%25.3	%100
% Adina	%100	%100	%100	%100

3. taula. Komunztadura adinaren arabera


3.2.2. EUSKALKIAREN/LURRALDEAREN ARABERA



1. grafikoa. Komunztadura eza euskalkiaren arabera

* Ehunekoak taldeari egiten dio erreferentzia, ez komunztadura plurala egin ez duten guztiei.


3.2.3. JABEKUNTZA, ESKOLATZEA ETA BIZILEKUAREN ARABERA



- Euskara H1
- Euskara 2H1
- Euskara H2g
- Euskara H2


Komunztadura pluralik ez (%)

2. grafikoa. Komunztadura eza jabekuntzaren arabera



Komunztadura pluralik ez (%)

3. grafikoa. Komunztadura eza eskolatzearen arabera



- Baserrikoak
- Hirikoak
- Hirixkakoak

Komunztadura pluralik ez (%)


4. grafikoa. Komunztadura eza bizilekuaren arabera

3.2.4. IS FUNTZIOA


- Zenbatzaileak modifikatzen duen IS-aren funtzio sintaktikoak garrantzi handia du zenbaki-komunztadura aldakortasunean

[-KMZ] OZ (*apur, sobera*) > **Subj ABS.** (*apur, guti*) > **Subj ERG** (*apur, sobera*) **[+KMZ]**


Objektu Zuzena



Subjektua (ABS)



Subjektua (ERG)



5. grafikoa. IS funtzioaren araberako komunztadura (-/+) portzentaiak

3.2.4. IS FUNTZIOA

- Literaturan emandako orokorpen deskriptibo batzuek ez dituzte gaur egungo hiztunen euskararen ezaugarriak islatzen:
 - Etxeberria & Etxepareren (2009) kontra, gure analisiak Iparraldeko gaur egungo hiztunek **subjektu ergatiboekin** zenbatzaile **komunztadura gabeak** onartzen dituztela erakusten du, (oso kasu gutxietan bada ere).

Hiztuna	Kmz (-)	Adina	Bizilekua	Euskara	Euskalkia	Eskolatzea
YOSAN	C93-98	40-60	Baserria	H1	Zuberera	Frantsesez
MOBA	C95	40-60	Hiria	H1	Behe-nafarrera	Frantsesez
EHI	C93,C95, C98	40-60	Hiria	2H	-	Frantsesez
IOSEN	C95	-30	Hirixka	H1	Lapurtera	Euskaraz
MAIAZ	C95	-30	Hirixka	H1	Lapurtera	Euskaraz
GORBA	C93,C95	-30	Baserria	H2g	-	Euskaraz
ALAZI	C95	-30	Hiria	H1	Lapurtera	Eusk + fran

4. taula. Subjektu ergatiboekin komunztadura plurala egiten ez duten hiztunen datuak

Joera berria ote?

3.2.5. FORMA ALOKUTIBOEN ERAGINA KOMUNZTADURAN

- Perpaus **existentzialetan** komunztadura **plurala** nabarmen **jaisten** da corpus osoan, baina bereziki egitura alokutiboetan.
- Corpusean zehar hainbat perpaus forma alokutiboekin eman dira (*tokan* eta *zukan*)

▪ **Alokutibotasunaren oinarrizko ezaugarriak:**

- 1) Entzulea edo hartzaileari egiten dio erreferentzia = morfologikoki 2.p.sg
- 2) Aditzaren barnean argumentua ez den beste pertsona-marka

- Alokutibo-markak ERG marka darama: IZAN □ *EDUN

(15) a. Ez **da**_{ABS} gaur etorri txokora (forma neutroa)

b. Ez **duk/n/zu**_{ABS-ERG} gaur etorri txokora (forma alokutiboa)

(Oyarçabal, 1993: 97)

- ERG kasua jada argumentu batek badauka, DAT marka: *EDUN □ *-IN- erro tripertsonala

(16) a. Mikelek neska berria bota **du**_{ABS-ERG} (forma neutroa)

b. Mikelek neska berria bota **dik/n/zu**_{ABS-ERG-DAT} (forma alokutiboa)

- 2.p sg argumentua bada □ Hartzailea = Argumentua □ Forma alokutiborik EZ

(17) a. Bakarrik etorri al haiz? (2.sg.ABS argumentua da)

b. Opil ederra egin **duk/n/zu**_{ABS-ERG} ! (2.sg.ERG argumentua da)

3.2.5. FORMA ALOKUTIBOEN ERAGINA KOMUNZTADURAN

- ***Ikerketa-galdera:*** Kontuan hartuz, oro har **OZ**-rekin gertatzen dela **nagusiki komunztadura falta** (= **2 argumentu**), loturarik al dago **zuketa alokutiboko formak** (**argumentu 1 + pertsona-marka 1**) erabiltzeko estrategiaren eta komunztadura plurala ez eragiteko joeraren artean?
- ***Hipotesia:*** Komunztadura plurala eragiten duen subjektu absolutiboa **forma alokutibora pasatzean**, komunztadura plurala (gehienetan) galdu egingo da. Forma alokutiboetan marka alokutiboa **argumentua ez** bada ere, aditz-inflexioak gutxienez **bi markak (ABS-ERG)** dauzka, beraz, baliteke bigarren marka horrek (ERG) komunztadura galtzea eragitea.

(18) Trataera neutroan:

*Leku huts anitz bada*_(hura) *treiñ ortan.* (C86, XLEAHA)

(19) Zuketa alokutiboan:

*Lekhü hüks hanitx badüzü*_(zuk-hura) *treiñ huntan.* (C86, PIMUS)

3.2.5.1. ALOKUTIBOAK: KOMUNZTADURAREN AZTERKETA

- *Norantz*-eko 1179 perpausetatik 115 perpaus alokutiboan emanda daude.
- 11 hiztunek emanda (6 besterik ez 20 perpaus guztietan zehar)
- **Azterketa:** Forma alokutiboan emandako perpausak aztertu ditugu, eta forma neutroan emandakoekin konparatu ditugu
- **Emaitzak:**
 - **1) Perpausak forma alokutiboekin emateak ez du eraginik komunztaduran.**

		Alokutiboa?		Guztira
		Ez	Bai	
Komunztadura	-KMZ	12 (%17,9)	41 (%27)	53
	+KMZ	55	110	165 (%100)
Guztira		67	151	218

5. taula. Komunztadura forma alokutiboa edo neutroaren arabera.

- 2) Zenbatzailearen funtzioa **Subjektu ABS** denean, **komunztadura pluralak** nabarmen egiten du **behera**, izan ere, erdiak bakarrik egiten du komunztadura plurala.
- Zergatik?** Hipotesitik abiatuta, baliteke argumentala ez den **ERG markak** komunztaduran eragina izatea, komunztadura pluralaren agerpena gutxiagotuz.
- Corpusean, **forma neutroetako** perpausetan, **funtzioa OZ** denean egiten du behera gehien. Hortaz, badirudi alokutiboak aditzean eragiten duen **ABS-ERG egitura** dela **komunztadura plurala**


(20) Haur sobera lerratu düzü
(alokutiboa)

(21) Gozoki sobera ekharri düzü
(neutroa)

		Komunztadura		Guztira
		-KMZ	+KMZ	
Funtzioa	Subjektu ABS	30	31	61
	Objektu ABS	6	48	54
	Subjektu ERG	7	33	40
Guztira		43	112	155

6.Taula. Zenbaki (+/-) komunztadura funtzio sintaktikoaren arabera (alokutiboetan)

3.2.6. ZENBATZAILEEN ARABERA













“Zenbatzaileen arteko ezberdintasun nabarmenak daude komunztaduragabeko formak baimentzeko orduan”

- Apur
- Guti
- Sobera
- Anitz
- Gehiegi
- Asko
- Aski
- Oro
- Zenbait
- Guzi
- Batzuk

[-KMZ]

[+KMZ]

6. grafikoa. Zenbatzaileen agerraldi guztietatik komunztadura ezaren agerraldiak (%)



7. grafikoa. Funtzioaren araberako zenbatzaileen komunztadura eza (%)

4. KOMUNZTADURA HEGOALDEKO TESTU ZAHARRETAN ZE HAR

- **Testuingurua:** Gaur egun, adituek zenbatzaileekiko komunztadura Iparraldean zein Hegoaldean hautazkoa dela dioten arren (E&E, 2009), **Hegoaldean arrotza** egiten zaie hainbat hiztuni **zenbatzaileek pluralez ez komunztatzea**.
- Zubiri & Zubirik (1994) eta Txillardegik (1978) diotenez, fenomeno hau mantentzea arkaismoa da, noizbait orokorra izan zelako Euskal Herri osoan. □Ebidentziarik EZ
- **Helburuak:**
 - (i) Hegoaldean zenbatzaileak komunztadurarik gabe erabiltzen ote ziren aztertzea.
 - (ii) Hala izatekotan, ea noiz eta non hasi zen fenomeno indarra galtzen.
- **Metodologia:** XV-XIX. mende bitarteko Hegoaldeko testuen adibideak biltzea
 - Lau euskalki: bizkaiera, arabera, gipuzkera, nafarrera
 - Hiru garai: Euskara Arkaikoa, Euskara Zaharra/Klasikoa, eta Lehen Euskara Modernoa
 - Testurik erabilgarrienak eta esanguratsuenak

	Euskara Arkaikoa (1400-1600)	Euskara Zahar eta Klasikoa (1600- 1745)	Lehen Euskara Modernoa (1745-1877)
Bizkaiera	-Arrasateko Erreketa (post 1448) -Milia Lasturko* -Juan Zumarraga (1537)* -R&S (1596)	-Viva Jesus (c. 1640) -Mikoleta (1653) -Kapanaga (1656)	-Fraibartolome (1807) -Astarloa (1818) -Añibarro (1821)
Arabera	-Landucci (1562)* -Betolatza (1596) -Lazarraga (c. 1602)	-Portal (1609, 1610)* -Barrutia (c. 1750)	-Gamiz (1748, 1773)* -Albeniz (1778)* -Laudioko dotrina (1828)*
Gipuzkera	-Miserere Deus?* -Tolosako eskontitzak (1557)*	-Tolosako ziri-bertsoak (1619)* -Maria de Jesusen gutunak (1622)* -Otxoa Arin (1713) -Irazusta (1739) -Kardaberatz (1744)	-Irazusta (1797) -Iztueta (1824) -Lardizabal (1855)
Nafarrera	-Zalba & San Martinen gutunak (1415)* -Kondestablearen Kantua (1494)* -Ezkontza fedea: Zubia (1552)* -Gure Principe don Henrique Jaunari (1554)* -Amenduxen Eresia (1564)* -Simancasko gutunak (1598)*	-Nafar katixima (1614)* -Berriain (1621, 1626) -Franzisko Elizalde (1735)	-Larrasoañako hitzaldia (1702?) -Etxalarreko dotrina (1749)* -Orrioko elizgutuna (1750)* -Ororbia (1758) -Etxarriko idazkia (1762) -Inzako izkribua (1772)

7. taula. *Azterketa diakronikorako corpus hautatua.*

4.1. EMAITZAK: EUSKALKIAREN ETA GARAIAREN ARABERA

	E. Arkaikoa (1400-1600)		E. Zaharra (1600-1745)		LEM (1745- 1877)		GUZTIRA	
	-	+	-	+	-	+	-	+
+/- KMZ	-	+	-	+	-	+	-	+
Bizkaiera	3	2	2	+6	0	+15	5	+23
Arabera	3	3	0	+4	-	-	~3	~+7
Gipuzkera	-	-	3	+12	3	+10	~6	~+22
Nafarrera	-	-	9	7 +3	0	+7	~9	~+17
GUZTIRA	~6	~5	14	+22	~3	~+32	~24	~+69

Beherakada hasten da

Komunztadura pluralik ez zenbaki kardinalekin

Komunztadura falta euskalki guztietan

- Ez da adibiderik aurkitu.
+ Adibide gehiago daude.
~ Gutxi gora-beherako emaitza.

8. taula. Komunztadura (+/-) euskalkiaren eta gariaren arabera

Komunztadura plurala gutxien egin duen euskalkia

4.2. EMAITZAK: FUNTZIOAREN ARABERA

·Komunztadur
ra pluralik ez
OZ
funtzioareki
n agertzen
diren
zenbaki
kardinalekin

·Zuberoan
gordetzen
den
arkaismoa!
(Coyos, 1999)

	E. Arkaikoa (1400-1600)			E. Zaharra (1600-1745)			LEM (1745-1877)			GUZTIRA		
	S. ABS	O. ABS	S. ERG	S. ABS	O. ABS	S.ERG	S. ABS	O. ABS	S. ERG	S. ABS	O. ABS	S. ERG
Funtzioa (-KMZ)												
Bizkaiera	1	2	0	1	1	0	0	0	0	2	3	0
Arabera	0	1+1	1	0	0	0	-	-	-	~0	~2	~1
Gipuzkera	-	-	-	0	1	2	0	0	3	~0	~1	~5
Nafarrera	-	-	-	1	6	2	0	0	0	~1	~6	~2
GUZTIRA	~1	~4	~1	2	8	4	~0	~0	~3	~3	~12	~8

- Ez da adibiderik aurkitu.

+ Adibide gehiago daude.

~ Gutxi gorabeherako emaitza.

9. taula. Komunztadura gabeko agerpenak funtzioaren arabera

Komunztadura plurala gutxien erabiltzen zen funtzioa OZ dena

5. ETORKIZUNARI BEGIRA

- *Norantz*-eko datuek aukera eman digute orain arte egin gabe dagoen lan bat egiteko, gramatiketan aipatzen den arren.
 - Gaur egungo **Iparraldeko hiztunen joerak aztertu** ditugu, zenbaki komunzaduraren hautazko erabilerari dagokionez.
- Laginak muga batzuk dituzenez, emaitzak tentuz hartu behar dira
 - Hala ere, gertakariaren **hasierako irudi eta hurbilketa** egiteko aukera izan da
 - **Etorkizunean bestelako ikerketa batzuen oinarri** izan daiteke
- Etorkizunean egin daitezkeen ikerketak:
 - **a) *Norantz* gehiago jorratzea:** Alokutiboaren eragina komunztaduran zenbatzaile gabeko perpausetan aztertuz.
 - **b) Beste galdetegi bat prestatzea:** Dauden joerak ondo aztertuta, zuzenean fenomeno zehatz hau aztertzea helburu duen galdetegi bat. □ semantika kontuan hartuz
 - **c) Alderdi diakronikoan sakontzea:** Ikusteke geratu ziren testuen adibideak biltzea, fenomenoaren ikuspuntu historiko osoagoa lortzeko.



Udako Euskal Unibertsitatea

ESKERRIK ASKO!



Eukene Franco Landa

PhD student

University of Miami

eukenefrancolanda@miami.edu

